



BERANGOKO UDALA

BIZKAIA

4. ORDENANTZA FISKALA
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA
OBREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN
DUEN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANZA FISCAL N° 4
ORDENANZA FISCAL REGULADORA
DEL IMPUESTO SOBRE
CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y
OBRAS

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

CAPITULO I. DISPOSICIONES
GENERALES

1. artikulua.

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta zerga horri buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga finkatzen eta eskatzen du, honako ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo, establece y exige el Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza.

2. artikulua.

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplicará en todo el término municipal.

II. KAPITULUA. ZERGA EGITATEA

CAPÍTULO II. HECHO IMPONIBLE

3. artikulua.

Edozein eraikuntzak, instalaziok edo obrak zerga honen zerga egitatea osatuko du, baldin eta kasu horietan hirigintza izaerako dagokion obra lizentzia lortzea beharrezkoa bada.

Artículo 3.

Constituye el hecho imponible de este impuesto, la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras de carácter urbanístico.

4. artikulua.

Besteak beste, honako hauek zergapeko egintzak dira:

- a) Oin-plano berriko mota guztietako eraikuntzak eta instalazioak eraikitzeak obrak.
- b) Egon dauden era guztietako eraikin edo instalazioetan egiten diren zabalkuntza obrak.
- c) Egon dauden era guztietako eraikin eta instalazioen egitura ukitzen duten aldarazpen edo zaharberrikuntzako obrak.
- d) Kanpoko itxura aldatzen duten obrak egitea, mota guztietako eraikin edo instalazioetan.

Artículo 4.

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

- a) Las obras de construcción de edificaciones e instalaciones de nueva planta, de todas clases.
- b) Las obras de ampliación de edificios e instalaciones existentes, de todas clases.
- c) Las obras de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones existentes, de todas clases.
- d) Las obras de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones existentes, de todas



BERANGOKO UDALA

BIZKAIA

- e) Eraikinen barruko taxuketa aldatzen duten obrak, beraien erabilera gorabehera.
- f) Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/98 Legearen 17. artikulua aitpatzen dituen obrak, behin-behineko izaeraz egiten badira.
- g) Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- h) Lur mugimenduak (lur erazketak, hondeaketak eta betelanak, besteak beste) salbu eta horrelako lanak urbanizazio edo eraikuntza proiektu onetsi edo baimenduetan zehazturik eta programaturik daudenean.
- i) Eraikuntzak eraistea, berehalako aurri-adierazpena dutenak izan ezik.
- j) Lurpeko instalazioak: aparkalekuak; industria, merkataritza edo lanbide jardueretarako instalazioak; zerbitzu publikoak; edo lur azpiari ematen zaion beste edozein erabilera dutenak.
- k) Herri bidetik ikus daitezkeen propagandako kartelak ipintzeko obrak.
- l) Edozein obra, eraikin edo instalazio, baldin eta gaitasun ekonomikoa erakusteko baliabide ekonomikoak inbertitzea eskatzen badute, eta hirigintza obra lizentziaren mende badaude.

5. artikulua.

Ez dira egongo zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntza, obra eta instalazioak, baldin eta obraren jabea udala bera bada.

III. KAPITULUA. SALBUESPENAK

6. artikulua.

Zerga hau ordaintzetik salbuespen dira estatuaren, autonomia-erkidegoen edo Bizkaiko Lurralde Historikoaren edo toki erakundeen jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrak, baldin eta horri lotuta badaude, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanleguneen saneamendu eta horien hondakin

clases.

- e) Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios cualquiera que sea su uso.
- f) Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el artículo 17 de la Ley 6/98 de 13 de abril, sobre régimen de suelo y valoraciones.
- g) Las obras de instalación de servicios públicos.
- h) Los movimientos de tierra tales como desmontes, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o Edificación aprobado o autorizado.
- i) La demolición de las construcciones, salvo las declaradas de ruina inminente.
- j) Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.
- k) La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.
- l) Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones, que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras urbanísticas.

Artículo 5.

No estarán sujetos a este impuesto, las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

CAPÍTULO III. EXENCIONES

Artículo 6.

Se exime del pago de este impuesto, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas, el Territorio Histórico de Bizkaia, o las Entidades Locales que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinados a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras



BERANGOKO UDALA

BIZKAIA

uren saneamendurako izango badira; hori horrela da kudeaketa erakunde autonomiadunek egin arren, hala inbertsio berriko obrak direnean nola artapenekoak direnean.

Eliza Katolikoa, estatuak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruz 1979ko urtarrilaren 3an egindako itunean ezarritako moduan (2001eko ekainaren 5eko Aginduaren arabera; horren bidez argitzen da nola sartu den Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga estatu espainiarrek eta Egoitza Santuak gai ekonomikoei buruzko 1979ko urtarrilaren 3an egindako Itunaren IV. artikuluko 1. atalaren b) letran.

IV. KAPITULUA. SUBJEKTU PASIBOAK

7. artikulua.

Ondorengoak dira, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Lurreko Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obraren jabe direnak, haiek dauden higiezinaren jabe izan zein ez.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez bada, beraren ordezkari subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen dutenak edo hura egiten dutenak.

Ordezkoak zergadunari ordaindutako zerga kuotaren zenbatekoa eskatu ahaliko dio.

V. KAPITULUA. ZERGA OINARRIA

8. artikulua.

Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua eta kostu erreala izango da; benetako kostua hura materialki burutzeko kostua izango da.

hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

Se exime también del pago de este impuesto, a la Iglesia Católica, en los términos previstos en el acuerdo entre el Estado y la Santa Sede sobre asuntos económicos fechados el 3 de enero de 1979 (De acuerdo a la Orden de 5 de Junio de 2.001 por la que se aclara la inclusión del Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras en la letra b) del Apartado I del artículo IV de acuerdo entre el Estado Español y la Santa Sede sobre Asuntos Económicos, de 3 de enero de 1979)

CAPÍTULO IV. SUJETOS PASIVOS

Artículo 7.

Son sujetos pasivos de este Impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del territorio Histórico, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquella.

A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra, quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la consideración de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

CAPÍTULO V. BASE IMPONIBLE

Artículo 8.

La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella.



BERANGOKO UDALA

BIZKAIA

Zerga oinarrian ez dira sartuko ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratistaren industri mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guztiak.

Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio eta obren kasuan, zerga oinarria udal administrazioak ezarriko du.

VI. KAPITULUA. ZERGAREN KUOTA

9. artikulua.

Oinarri ezgarriari karga tasa aplikatetik ateratzen den emaitza izango da zerga honen kuota. Oro har, %5ekoa izango da, honako hauek ez direnean: babes ofizialeko etxebizitzetako eraikuntza, instalazio eta obrak eta udal etxebizitza tasatuak. Kasu hauetan %3,25ekoa izango da.

10. artikulua

Aurreko artikuluaaren emaitzako kuotan, %60ko hoberia ezarri da, eraikinetan eta aurretik dauden eraikuntzetan oztupo arkitektonikoak kentzeko helburuarekin, edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiten bada.

Aurretiaz existitzen ziren oztupoak kentzen dituzten eraikuntzak, instalazioak edo obrak lan handiago baten parte badira, ez da hobari hau aplikatuko, ulertzen baita derrigorrez kendu behar zirela.

VII. KAPITULUA. SORTZAPENA

11. artikulua.

Zerga eraikuntza, instalazioa edo obra hasi aurretik sortuko da.

No forman parte de la base imponible, el impuesto sobre el valor añadido y demás impuestos análogos, propios de los regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra ni tampoco los honorarios profesionales, el beneficio industrial del contratista, ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente el coste de ejecución material.

En caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la administración municipal.

CAPÍTULO VI. CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 9.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible, el tipo de gravamen que será de un 5% con carácter general, salvo en los casos de construcciones, instalaciones u obras relativas a viviendas de protección oficial y viviendas tasadas municipales, en las que el tipo será del 3,25%.

Artículo 10.

Sobre la cuota resultante en el artículo anterior, se establece una bonificación del 60%, a la realización de cualquier construcción, instalación u obra que suponga la eliminación de barreras arquitectónicas de edificios o construcciones preexistentes.

Cuando la construcción, instalación u obra que suponga la eliminación de las barreras preexistentes se englobe en una obra de mayor entidad, no será de aplicación esta bonificación, al entenderse obligada su supresión.

CAPÍTULO VII. DEVENGO

Artículo 11.

El impuesto se devengará con carácter previo al inicio de la construcción, instalación u obra.



BERANGOKO UDALA

BIZKAIA

VIII. KAPITULUA. KUDEAKETA

12. artikulua.

Aginduzko lizentzia ematerakoan, edo aginduzko lizentzia hori eskatu, eman edo ukatu gabe eraikina, instalazioa edo obra hasiz gero, konturako behin-behineko likidazioa egingo da, interesatuek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zerga oinarria zehaztuz, betiere dagokion Elkargo Ofizialak ikusi badu, nahitaezko eskakizuna denean; bestela, zerga oinarria udal teknikariek zehaztuko dute proiektuaren kostuaren arabera.

13. artikulua.

Lizentzia eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazioa berriro egiteko, aurrekontu berriak jatorrizkoa zenbatean gainditzen duen kontuan hartuta.

14. artikulua.

Benetan egin diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien benetako kostua kontuan hartuta, udal administrazioak administrazio egiaztapen egokia egingo du. Emaitzaren arabera, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatuko du, behin betiko likidazioa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion diru-zenbatekoa itzuliko edo eskatuko dio.

Aurreko idatz-zatian ezarri denaren ondorioetarako, obra bukatzerakoan edo obraren behin-behineko harreraren ondoren, inguruabar honen aitorpena aurkeztu behar da, udal administrazioak emango duen inprimakian. Aitorpenarekin batera, obrako zuzendariaren ziurtagiria aurkeztu behar da, dagokion elkargo profesionalak ikusonetsirik, egin baldin badaiteke. Ziurtagirian, obren kostu osoa ziurtatu behar da.

CAPÍTULO VIII. GESTIÓN

Artículo 12.

Cuando se conceda la licencia preceptiva o cuando, no habiéndose solicitado, concedido o denegado aún dicha licencia preceptiva, se inicie la construcción, instalación u obra, se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible, en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el Colegio Profesional correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo; en otro caso, la base imponible será determinado por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

Artículo 13.

Si concedida la correspondiente licencia, se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

Artículo 14.

Una vez finalizada la construcción, instalación u obra efectivamente realizadas y teniendo en cuenta el coste real efectivo de la misma, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa, modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva, y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole en su caso la cantidad que corresponde.

A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el Colegio Profesional correspondiente, cuando sea perceptivo, por la que se certifique el costo total de las obras.



BERANGOKO UDALA

BIZKAIA

15. artikulua.

Zergaren likidazioari dagokionez, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentzien ondorioak berariaz ematen diren lizentzienak eurak izango dira.

16. artikulua.

Udalak autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.

17. artikulua.

Lizentzia titular batek ez baldin baditu hasi baimendutako obrak, eraikinak edo instalazioak, eta egitea bertan behera uzten badu idatziz jasotako berariazko ukoaren bidez, udalak egindako behin-behineko likidazioa osorik itzuliko dio, dagokion hirigintza tasa izan ezik.

Artículo 15.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

Artículo 16.

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

Artículo 17.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, siempre y cuando no hubiese iniciado las mismas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro total de la liquidación provisional practicada, a excepción de la tasa urbanística correspondiente.